

# Mira cuándo te toca


PROGRAMA DE DETECCIÓN PRECOZ DE CÁNCER DE CUELLO DE ÚTERO



## Cáncer de cuello de útero

### ¿Qué es el cáncer de cuello de útero?

El cáncer de cuello de útero o cáncer de cérvix es una enfermedad en la que se forman **células malignas (cancerosas)** en los tejidos del cuello uterino.



### ¿Es frecuente el cáncer de cuello de útero?

En España se diagnostican unos **2.000 casos al año**.

### ¿Qué causa el cáncer de cuello de útero?

- Más del **99%** de los casos de cáncer de cuello de útero está causado por algunos tipos del **virus del papiloma humano (VPH)**.
- Este virus es muy frecuente y se transmite a través de las **relaciones sexuales**. Muchas mujeres han podido tener contacto con él en algún momento de su vida.
- Generalmente, nuestro **sistema inmunológico** se encarga de hacerlo desaparecer. Si no es así, al cabo de muchos años y de manera excepcional, se pueden ocasionar cambios celulares que podrían evolucionar a cáncer.

## Cómo prevenirlo

### ¿Se puede prevenir?

Sí se puede prevenir, de dos maneras:

- **Con la prevención primaria** se reduce el riesgo de infección. Para ello, se recomienda **vacunarse** contra el virus del papiloma humano y el uso de **preservativo**, siempre acompañado de una educación para una **sexualidad saludable**.
- **Con la prevención secundaria** se consigue diagnosticar lesiones malignas o premalignas en una fase inicial. Aquí se enmarca el nuevo **Programa de Detección Precoz de Cáncer de Cuello de Útero**, que es gratuito.

### ¿A quién va dirigida y en qué consiste esta prueba?

- El programa se dirige a mujeres asintomáticas de entre **30 y 65 años**.
- Se realiza cada **5 años**.
- **La prueba es muy sencilla** y con ella se detecta el virus del papiloma humano en el fluido vaginal.
- Con la muestra, **se puede encontrar material genético del virus** de los serotipos de alto riesgos responsables del cáncer de cuello de útero.

### ¿Cómo se realiza la prueba?

- **Primera opción: Realizada por la propia mujer en su domicilio (autotoma)**
  - Es una prueba muy sencilla que no requiere entrenamiento previo. Consiste en introducir un pequeño dispositivo en la vagina, girarlo 360 grados y retirarlo.
  - Después, has de llevar la muestra a los puntos de recogida.
- **Segunda opción: Realizada en algunos Centros de Atención a la Salud Sexual y Reproductiva (CASSyR),**

### ¿Qué significa una prueba de VPH positivo?

- Entre un **5%** y un **10%** de las pruebas serán positivas para virus del papiloma humano de alto riesgo.
- En ese caso, hay que realizar una **citología**.
- Si la toma se realizó en casa (autotoma), tienes que acudir a tu CASSyR. Si la muestra fue tomada en el CASSyR, en esa misma muestra se podrá realizar la citología.
- Solo si la citología también resulta positiva, será necesaria la realización de una **colposcopia**.

### ¿Qué es una colposcopia?

- Es una **exploración del cuello de útero** realizada con **lentes que aumentan su tamaño**. Gracias a ella, pueden localizarse las células cancerígenas y proceder a su diagnóstico y tratamiento.

## Cuatro claves que debes saber



### ¿A quién va dirigido?

A mujeres de **30 a 65 años**.



### ¿Cómo tomo la muestra?

Puedes realizarla en tu casa, de manera totalmente autónoma y privada, o pedir cita para acudir al CASSyR llamando al 848 423 498.



### ¿Dónde se entrega la muestra?

- En los Centros de Atención a la Salud Sexual y Reproductiva (CASSyR).
- En el Centro de Salud, si no hay CASSyR en la zona.
- En el Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra.



### ¿Tienes dudas? Más información

**Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra. Programa de Detección Precoz de Cáncer de Cuello de Útero.**

Francisco Bergamín 2 bis.  
31003 Pamplona/Iruña  
**Tfno.** 848 423 498  
cuelloutero@navarra.es  
cancercuelloutero.navarra.es



# Begiratu noiz dagokizun


UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA  
GARAIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA



## Umetoki-lepoko minbizia

### Zer da umetoki-lepoko minbizia?

Umetoki-lepoko minbizia, edo zerbixeko minbizia, gaixotasun bat da, eta bertan **zelula gaiztoak (tumore-zelulak)** sortzen dira umetoki-lepoko ehunetan.



### Ohikoa al da umetoki-lepoko minbizia?

Espanian, **2.000 kasu** inguru diagnostikatzen dira **urtean**.

### Zerk eragiten du umetoki-lepoko minbizia?

- Umetoki-lepoko minbiziaren kasuen **%99** baino gehiago **giza papilomaren birusaren (GPB)** mota batzuek eragiten dituzte.
- Birus hori oso ohikoa da, eta **sexu-harremanen** bidez kutsatzen da. Baliteke emakume askok birus horrekin kontaktua eduki izana haien bizitzako uneren batean.
- Jeneralean, gure **immunitate-sistemak** desagerrarazten du birusa, baina ez bada hala, urte askoren buruan eta ezohiko eran, baliteke zelula-aldaketak gertatzea eta ondorioz minbizia sortzea.

## Nola aurrea hartu

### Aurrea har dakioko?

Bai, aurrea har dakioko, bi modu hauetara:

- **Lehen prebentzioaren bidez** kutsatzeko arriskua murrizten da. Horretarako, giza papilomaren birusaren aurkako **txertoa jartzea** gomendatzen da eta bai **preserbatiboa** erabiltzea ere, **sexualitate osasungarri** baterako hezkuntza batek lagunduta beti.
- **Bigarren prebentzioaren bidez**, lesio gaiztoak edo gaiztotu aurreko lesioak diagnostikatzea lortzen da, hasierako fase batean. Eta hemen kokatzen da **Umetoki-lepoko Minbizia Garaiz Detektatzeko Nafarroako Programa**, doakoa dena.

### Norentzat da programa eta zertan datza proba?

- **30 eta 65 urte** arteko emakume asintomatikoentzat da programa.
- **5 urtean** behin egiten da.
- **Proba oso erraza da**, eta haren bitartez giza papilomaren birusa detektatzen da baginako jariakinean.
- Lagina hartuta, **birusaren material genetikoak aurki daiteke**, umetoki-lepoko minbizia eragiten duten arrisku handiko serotipoetakoa.

### Nola egiten da proba?

- **Lehen aukera: emakumeak berak egitea etxean (nork bere proba egitea).**
  - Oso proba erraza da, eta ez da beharrezkoa aurretik entrenatzea. Gailu txiki bat sartu behar duzu baginan, 360 gradu biratu eta atera.
  - Gero, lagina bilketa-gune batera eraman behar duzu.
- **Bigarren aukera: Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretarako Zentron batean egitea (SUOAZ).**

### Zer esan nahi du GPBaren proba positiboa izateak?

- Proben **%5** eta **%10** artean positiboak izango dira arrisku handiko giza papilomaren birusarako.
- Hala bada, **zitologia** bat egin behar da.
- Lagina etxean hartu bazenuen, dagokizun SUOAZera joan behar duzu. Lagina profesional batek hartu bazizun, lagin horretan bertan egin ahal izango da zitologia.
- Eta zitologia bera ere positiboa bada, **kolposkopia** bat egin beharko da.

### Zer da kolposkopia bat?

- **Umetoki-lepoaren miaketa** bat da, bere **tamaina handitzen duten lenteekin** egiten dena. Miaketari esker, hain zuzen, zelula kantzerigenoak aurkitu eta diagnostikoa eta tratamendua egin daiteke.

## Jakin beharreko lau gako



### Norentzat da?

**30 eta 65 urte** arteko emakumeentzat.



### Nola hartu lagina?

Etxean egin dezakezu, modu guztiz autonomoan eta pribatuan, edo zure CASSyR-era joateko hitzordua eskatu dezakezu 848 423 498 telefono zenbakira deituta.



### Nora eraman behar da lagina?

- Sexu eta Ugalketa Osasunaren Arretarako Zentro batera (SUOAZ).
- Osasun-etxera, eremuan CASSyRrik ez badago.
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura.



### Baduzu zalantzarik? Argibide gehiagotarako

**Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua. Umetoki-lepoko Minbizia Garaiz Detektatzeko Programa.**

Francisco Bergamín, 2, bis.  
31003 Iruña

**Tfno.** 848 423 498  
cuelloutero@navarra.es  
umetokilepokominbizia.nafarroa.eus

